

## **C1. IDAZMENA**

### **1. ARIKETA: KOPRODUKZIOA**

M. zure lagun minarekin batera dantza ikasketak egin zenituen Madrilen. Han biok gogor lan egin zenuten, inoiz dantzatik bizi ahalko zinetela amestuz. Ikasketak bukatu zenituztenean, ametsei tinko jarraitzea erabaki zenuten.

Jadanik sei urte dira batera eta bestera zabiltzala, batere egonkortasunik gabeko lantxoak eginez; horregatik, amore ematea erabaki duzu. Atzodanik Mercadona batean zaude kutxazain. M. zure lagunak, berriz, jarraitzen du “ametsen atzetik”.

M. lagunari idaztea erabaki duzu. Gutun horretan, nola sentitzen zaren azaltzeaz gainera, zure erabakiaren zergatia esplikatu behar diozu.

Hurrengo gai honetaz **120-150 hitzeko gutuna** idatzi behar duzu.

---

### **2. ARIKETA: PRODUKZIOA**

Pasa den asteburuan Maratoi bat egin da zure hirian. Milaka korrikalari etorri dira, horregatik hiria guztiz kolapsatua egon da: trafiko gorabeherak, zalaparta etengabea... Hiritarren kexak ez dira gutxi izan, noski. Batak ezin zuela kotxea garajetik atera, besteak megafonia etengabeak ohetik altxarazi duela... Zuk, berriz, uste duzu horrelakoek –direla lasterketak, direla bestelako ekitaldiak– onura dezente ekartzen dizkiotela hiriari.

*Berria* egunkarian artikulua bat eskatu dizute, horrelako ekitaldien onurak deskribatu eta zure iritzia emateko.

Hurrengo gai honetaz **250-280 hitzeko iritzi artikulua** idatzi behar duzu.